

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntza departamentuak amaitutzat eman du Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoaren parte hartze prozesua

Solana kontseilariak NUPen egindako jardunaldietan parte hartu du, Nafarroako ikastetxeetako ehundik gora profesionalekin batera

Asteartea, 2018.eko apirilak 17

Hezkuntza kontseilari Maria Solana "Aniztasunari Erantzuteko Plana: Eraldaketa global eta inklusiboak ikastetxeetan" izeneko jardunaldietan izan da, NUPen. Goiz eta arratsaldeko saioek balio izan dute orain dela urte erdi hasitako Planaren gardentasun prozesuarekin amaitzeko.



Ander Domblás, María Solana eta Roberto Pérez jardunaldiaren hasieran.

Ehundik gora ikastetxetako zuzendari, orientatzaile eta irakaskuntzako profesionalek parte hartu dute goizez eta arratsaldez egindako saioetan, Aniztasunari Erantzuteko Planari egindako ekarpenen berri jasotzeaz gainera, aniztasunaren inguruko hainbat esperientzia aurrez aurre ezagutzeko: Donotia Amara Berri, L'Hospitalet de Llobregateko Joaquín Ruyra eta Zaragozako Picarral, batetik, eta Falcesko Doña Alvara Alvarez, Lekuberriko Ibarberri eta Castejongo institutua, bestetik.

Maria Solana kontseilariak azpimarratu duenez, parte hartze prozesuak aberastu egin du dagoeneko erkidegoko ikastetxeetan abiarazitako Aniztasunari Erantzuteko Plana. "Gaur amaitzen den parte hartze prozesuak inklusioari bidea irekitzen dion aniztasunari erantzuteko modua eraldatuko du, modu justuago eta orekatuago batean erantzuteko, irakatsi-ikasi prozesuaaren erdigunean jarritz ikasleak". Gainera, Solanak gogoratu duenez, "kalitatezko hezkuntza sistema eguneratu eta modernoak ikasle guztien beharrezko erantzuteko gai izan behar du, modu ekitatibo batean, aniztasunari arreta eginez". "Beharrezkoa da ikasketa oztopatzen duten hesiak identifikatzea, fisikoak, sentsorial edo psikikoak, sozialak, ekonomikoak, kulturalak edo linguistikoak izan. Hesiak, azken batean, ikasle batzuen eskolatzeko prozesuan euren garapen egokia izan dadin oztopatzen dutenak", gehitu du Solanak.

Programa pilotua 21 ikastetxeetan

2016-2017 ikasturtetik, Nafarroako Erkidegoko 21 ikastetxe ari dira aniztasunari erantzuteko ekintza zehatzak garatzen. Ikastetxe horietan eraldaketa global eta inklusiboa gauzatzeko prozesuei ekin zitzaion "Kontratu-Programen" bidez. Pilotaje horrekin batera garatu diren beste hainbat eta hainbat ekintzek ere lagundu dute Aniztasunari Erantzuteko Plana sendotzen eta ikastetxeetan bertan eraldaketa prozesuei ekiten.

Hezkuntza zuzendari orokor Roberto Perezek, bestalde, "zentroen autonomia handiago baten aldeko urratsak" ematea zein garrantzitsua den adierazi du, "bai pedagogikoa, antolaketakoa eta kudeaketa autonomia, ikasleen beharrei erantzuteko, euren hezkuntza proiektu propioa diseinatzeko, izaera propioa garatzeko, hezkuntza komunitatatan errealitateari eta inguruneari egokieran erantzuteko".

Antolamendu, Orientazio eta Aukera Berdintasun zerbitzu-zuzendari Ander Domblasek gogoratu duenez, Aniztasunari Erantzuteko planak 91 ekarpen jaso ditu prozesu parte-hartzailean zehar, eta erdiak baino gehiago onartu dira. Hala, eskertu egin die, bai Mahai Teknikoetan, bai bestelako koordinazio bileretan parte hartu eta euren inplikazioa adierazi duten guztien lana.



NUPen egindako jardunaldian izan dira ehundik gora irakasle.